



FICOPA FUNDAZIOA

Sozietatearen izena

FICOPA Fundazioa.

IFK

G20816765

Izaera

Fundazioa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Ez da aplikatzekoa.

Sorrera

Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta 2003ko uztailaren 23an eratu zen. Fundazioen Erregistroan inskribatu zen ["Ficoba Fundazioa" Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeari buruzko Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren 2004ko martxoaren 4ko AGINDUA](#) betez.

Sail-atxikipena

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.

EJSN

9499 Beste leku batzuetan jaso gabeko elkartzetxe-jarduerak.

Fundazioaren xedea eta helburua

Oro har, Euskal Kostaldearen ekonomia eta kultura sustatu nahi ditu fundazioak, eta, bereziki, merkataritza-ekitaldiak sustatzen dituen azoka-esparrua sustatu, antolatu eta zuzendu.

Sailkapena kontabilitate nazionalen

Sozietate ez-finantzario publikoak-Tokiko korporazioak.

Fundazio-zuzkidura


497.981 €

Fundazio-zuzkiduraren osaera

Fundazio-zuzkidurak bi osagai ditu: batetik, erakunde fundatzaileek egindako ekarpenak (342.327 €), eta, bestetik, fundazioa eratu zenez geroztik etorri diren ekitaldietako soberakin positiboaren intsuldaketak (155.654 €).

12/12/31n, erakunde fundatzaileek fundazio-zuzkidurari egindako ekarpenak honela banatzen dira:

EAEko Administrazio Orokorra	% 37,99
Irungo Udala	% 23,50
Donostiako Udala	% 8,90
Bidasoa Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoa	% 8,90
Gipuzkoako Ganbera	% 8,90
Bidasoa Erakustazoka SA.	% 8,90
Baiona-Euskal Herriko Merkataritza eta Industria Ganbara	% 2,92



Patronatua

Fundazioa ordezkatzera, gobernatzea eta administratzea Patronatuaren eginkizuna da, eta Patronatuak legetan jasotako mugak baino ez ditu izango bere zereginetan. Fundazioaren xedea garatzeko beharrezkoak diren zuzenbide-eskumen eta -ahalmen guztien jabe da Patronatua. Honako hauek dira 2012ko ekitaldiko urteko kontuak egin dituzten Patronatuko kideak:

José Antonio Santano Clavero jauna	Presidente. Irungo Udala.
Fernando Amunárriz Bergés jauna	Presidenteordea. Gipuzkoako Bazkundera.
Miguel Ángel Páez Escamendi jauna	Idazkaria. Irungo Udala
Luis Alberto Petit Herrera jauna	Idazkariordea. Bidasoa Erakustazoka SA.
Cristina Laborda Albolea andrea	Irungo Udala.
M ^a Pilar Zorrilla Calvo andrea	EAEko Administrazio Orokorra.
Josu Mirena Ruiz Martin jauna	Donostiako Udala.
Jean Baptiste Sallaberry jauna	Bidasoa Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoa.
Jean Remazeilles jauna	CCI Bayonne-Pays Basque.

2012ko ekitaldiko urteko kontuak

[2012ko abenduaren 31ko urteko kontu laburtuei eta auditoriari buruzko txostena.](#)

2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	512.657 €
Ondare garbia	-648.769 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	0 €
Batez besteko langile-kopurua	10

Sozietatearen helbidea

Ipparalde hiribidea 43 - 20302 Irun (Gipuzkoa).

Webgunea

www.ficoba.org